

XUXEN euskararako lehen zuzentzaile ortografikoa kaleratu berri dute


UZEIren, HIZKIAren eta EHUKo Informatika Fakultatearen arteko elkarlanaren fruitua da

XUXEN izeneko Euskararako lehenengo zuzentzaile ortografikoaren aurkezpena egin zuten atzo UZEI erakundeak, Informatika Fakultateko Linguistika Konputazionalako taldeak eta HIZKIA enpresak. Euskararen erabilpenerako tresna berri hau hainbat talderen arteko elkarlanari esker gauzatu da.

ARANTXA ERASUN / DONOSTIA

Euskararako zuzentzaile hau kaleratu ahal izateko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Saila, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea eta Euskadi-Akitaniaren babesa beharrezkoa izan da. Horregatik, hauetako guztietako ordezkariak ere egitasmo honi laguntzeko arrazoiak azaldu zituzten aurkezpenean.

Julio Gonzalez Informatika Fakultateko Dekanoak, Gipuzkoako Kanpuseko errektoreordea den Jose Luis de la Cuestaren izenean hitz egin zuenak, lau puntu azpimarratu zituen XUXENi buruz. Lehenengoz, «unibertsitateko talde baten ikerkuntzaren emaitza da, beste zenbait erakunderekin batera elkarlanean erdietsia eta produktu komertzial bat aurrera eramatea lortu duena». Bestalde, XUXEN hainbat diziplinaren arteko lanaren fruitu izatea azpimarratu zuen: «hain zuzen, informatika eta hizkuntzalaritza adituen kolaborazioaren emaitza dela; eta ez nolanahikoa». Ez zuen ahaztu nahi izan euskararentzat zuzentzaile honek dakarren aurrerakada: «euskara, hizkuntzen in-



XUXENen sortzaile eta babesleak aurkeztu zuten Donostian.

ANDER GILLENEA

dustriari hurbiltzeaz gain, ikuspuntu praktiko batetik hizkuntza aurreratuenek testuak prozesatzeko erabiltzen dituzten tresnak lortzen hasia dela. Azkenik, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko lankidetzaren adibide «edertzat» hartu zuen elkarlanak eman duen fruitu hau.

ORAINGOZ FORMA ZUZENDUZ

XUXEN babestu duten elkarteei eskerrak emateaz gain, «egitasmoari hasieratik hain harrera ona eskaini dion» Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia

ere eskertu zuen Julio Gonzalezek. Harrera on horren erakusgarri, Idazkaritzako buru den Mari Karmen Garmendiak euskararentzat berri ontzat hartu zuen «gêro eta ugariago diren euskaldunek horrelako tresna izatea eguneroko lanean».

UZEIko partaide den Miriam Urkiak, Alexandre Dacosta eta Iñaki Alegriarekin batera, eman zuen XUXEN euskararako zuzentzaile ortografikoaren berri: «Idaztean sortutako akatsak egiaztatu eta zuzentzen dituen tresna da». Formak zuzentzen ditu, beraz, oraingoz; joskera eta

semantika, berriz, ez dira bere eginkizunak, zuzentzaile aurreratuari begira lantzen ari badira ere.

Gillermo Etxenike Gipuzkoako Aldundiko Ekonomia diputatuak XUXENen izaera ekonomikoa azpimarratu zuen: «gure ikuspegitik hizkuntzaren inguruko industriak bultzatu eta sustatzea beharrezkoa da». Era berean, prozesu honetan jarraitzea animatu zituen horretan lanean ari direnak. Josu Erkorekak ere egitasmo hau goraipatu zuen, «euskarak beharrezkoa zuen tresna baita».

HBk anomaliak salatu ditu Bilboko Udalaren kontratetan

N.A. / BILBO

Bi lan kontratazio erabakitzeke Bilboko Udalaren jardueran «irregularitasunak» izan dira, Kepa Ibaibarriaga eta Carlos Ruiz Garro Herri Batasunako zinegotziek atzo prentsurrekoan adierazi zuten. HBren ustez, Udala «zuzeneko enpresen kontratazioa eragozten saiatu da, kontraesanezko txostenen eta beste maniobren bitartez».

Zinegotzi abertzaleen arabera, «EAJrekin zerkusirik duten enpresei (Plentziako Txokoa delakoari hain zuzen) eman nahi zizkieten kontratak». Dena den, HBk egindako salaketak direla eta, «alkateak eta EAJk behinbetiko kontratazio egokia onartu beharko» dutela uste dute zinegotziek.

Kepa Ibaibarriagak jakinarazi zuenez, lehiaketa publikoan Tecuni SA enpresak irabazi zuen udal egoitzetako instalazio elektrikoak zaintzeko kontrata. Hala ere, osoko bilkurak ez zion lan kontratua inori eskaini; «irabazi ez zuen beste lantegi bati eman nahi baitzion EAJk», Herri Batasunaren ustez.

Ondoren, beste lehiaketa bat egin eta enpresa berak irabazi zuen, «aukera hoberena dela bi bider erakutsiz» zinegotziaren hitzetan. Bigarrenengo horretan 19 milioi pezeta baino gehiagoko eskaintza egin zuela eta, «Udalaren joko hauek garesti» egin dutela adierazi zuen HBk.

ZEIN DA ARANTZAZUTIK LEIOARAINOKO BIDEA?

LEIOA